



*Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa Saila*
*Departamento de Educación
Universidades e Investigación*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ELEXALDE BHI

Urteko Plana

2015
2016

Aurkibidea índice

1. Sarrera eta justifikazioa	x
2. Helburu orokorrak eta jardueren planifikazioa	x
3. Irakaskuntza-jardueren programa	
3.1. Ohiko irakaskuntza-jarduerak	
3.1.1. Antolaketa eta funtzionamenduaren aspektuak	x
3.1.2. Esperientziak, programak eta proiektuak	x
3.1.3. Prestakuntza eta garapen profesionala	x
3.2. Irakaskuntza-jarduera osagarrien programa	x
4. Eskolaz kanpoko jardueren programa	x
5. Eskolako zerbitzuak	x
6. Ekonomia-kudeaketarako plana	x
7. Hezkuntza-komunitateari informazioa helarazteko plana	x
8. IUPren garapenaren eta ikastetxearen funtzionamenduaren jarraipena.	x

1. Sarrera

Aurten, gure ikastetxean, aldaketa sakonak egon dira. Horien artean aipagarrienak kargu aldaketak dira. Zuzendaria, TIC arduraduna eta Normalkuntza arduradunak berriak dira. Guzti horrek eragina du ikastetxeko eguneroko funtzionamenduan eta urteko planean finkatutako helburuetan.

Arlo hauetako arduradunek karguaren eginkizunak modu eraginkor batean aurrera atera ahal izateko adaptazio epea behar dute. Guzti horrek eragina izango du prozesu koordinatzailean eta egiteko moduetan.

Baina ez dugu ahaztu behar helburu horien finkapenean eragin handia duela OINARRIZKO HEZKUNTZAREN CURRICULUMAK. Aurten finkatu ditugun helburuak gure ikasleen irteera-profil orokorrean eragina izango dute eta guztiek Curriculumean adierazitako kompetentziekin bat datoz.

Finkatutako helburuak hainbeste esparrutan, eztabaidatuak, adostuak eta onartuak izan dira, horien artean: Zuzendaritza Taldea, Koordinazio Pedagogiko Taldean, Departamentu Didaktikoetan eta Proiektuen arduradunak.

2. Helburu Orokorrak

1. helburuaren formulazioa

Iazko ikasturtean Galdakao udaleko Euskara Teknikaria eta udalerriko DBHko hiru ikastetxeko normalkuntza arduradunen artean (Elexalde BHI, Bengoetxe BHI eta Eguzkibegi Ikastola) eskola agenda bat sortu zuten, hau da: AGENDA 2015-2016 GALDAKAO. Agenda hori Galdakao DBHko ikasle guztiek doanik jaso dute.

Aurtengo helburua hurrengo da:

DBHko ikasle guztientzat agenda horren erabilera bultzatzea eta bertan ezagutzera ematen diren ibilbide historikoak, natura edukiak, musika edukiak, bertoko ipuin eta ohitura zaharrak transmititzea.

Kontuan hartu diren iturburuen aspektu zehatzen identifikazioa eta deskribapena eta eraginda diren ikastetxearen esparruak

Helburu honen iturburua Normalkuntzako proiektua da. Gure ikastetxean euskararen erabilera bultzatu beharra dago. 2015-2014 ikasturteko Hizkuntza Normalkuntza Diagnostikoaren Branka aztertuta helburu bat finkatu genuen: erabilera horren ehunekoa hobetzea.

Pentsatzen dugu hizkuntzaren erabilera hautu pertsonala dela eta askotan horretarako norberaren inguruko herri-kultura eta historia ezagutzeko premia da. Agenda horren edukietan herriko ibilbide historikoak, inguruko natura, bertoko ipuinak ... egunik egunera adierazita daude. Guzti horien transmisioan hainbat departamentu didaktikok parte hartuko

dute: Gizarte Departamentua, Euskara Departamentua, Natura Departamentua eta Musika Departamentua.

1.JARDUERA:

Agendaren aurkezpena.

ARDURADUNAK ETA AGENTEAK

Normalkuntzako arduradunek eta zuzendaritzak, aurreko ikasturte bukaeran gurasoei idatzi zizkieten agendaren berri emateko.

Orientazio Departamentuak DBHko tutoreekin antolatzen dituen kurtso hasierako bileran agenda aurkeztu eta banandu.

Normalkuntzako arduradunak bilera horietan agendaren helburuaren berri tutore guztiei ematea.

Tutoreak ikasturteko bigarren egunean, gelan bertan, agenda ikasleei banatzea eta aurkeztea.

Agenteak DBHko ikasleak dira.

DENBORALIZAZIOA

Gurasoei agendaren berri ematea: 2015eko ekainean.

Tutoreei aurkezpena : irailaren lehengo astean.

Ikasleei agenda ematea: ikasturteko lehengo astean.

BALIABIDEAK

Agenda bera.

EBALUAZIOA

DBHko ikasle guztiek hartzea tutoreen eskutik agenda eta bere aurkezpena.

2.JARDUERA:

Agendako lehenengo ebaluaketako edukiak transmititzea. Proposatzen den lehenengo ibilbidea DBH 2. maila eta DBH 4. maila guztiekin egin. Aurretik ibilbide hori aurkezten duen Labayruk egindako bidea ikustea gelan gizarteko gaian.

ARDURADUNAK ETA AGENTEAK

DBH 2. mailako eta DBH 4. mailako gizarte irakasleak eta normalkuntzako arduradunak.

Agenteak ikasleak dira.

DENBORALIZAZIOA

Ibilbidea egitea: urrian

BALIABIDEAK

Agenda bera eta Labayruko bideoa, pizarra digitala

EBALUAZIOA

Ibilbidea hori egitea.

3. JARDUERA

Ibilbidearen argazki lehiaketa DBH 2. mailakoekin . Ikasleek argazkiak ateratzeko mugikorrek erabiliko dituzte eta argazkiok normalkuntzako emailera bidaliko dituzte.

Lehiaketa horretarako epaimahaia sortuko da eta bertan normalkuntzako batzordeko partaideak egongo dira.

ARDURADUNAK ETA AGENTEAK.

Normalkuntzako arduradunak eta batzordea.

BALIABIDEAK

Agenda bera, mugikorrek, ordenagailuak, pizarra digitala.

EBALUZIOA

Lehiaketako parte hartzaile kopuruan oinarrituta dago.

4. JARDUERA

Agendako bigarren ebaluaketako edukiak transmititzea. Proposatzen diren bigarren ebaluaketako musika edukiak DBH 1. maila guztiekin transmititzea.

ARDURADUNAK ETA AGENTEAK

DBH 1. mailako musika irakasleak eta normalkuntzako arduradunak.

Agenteak ikasleak dira.

DENBORALIZAZIOA

Bigarren ebaluaketan

BALIABIDEAK

Agenda bera eta bertan agertzen diren musika taldeen abestien audioak eta bideoak.

Pizarra digitala.

EBALUAZIOA

Froga idatzietan agendako edukien galderak egin eta puntuatu.

5. JARDUERA

Agendako hirugarren ebaluaketako edukiak transmititzea. Proposatzen diren hirugarren ebaluaketako ipuin eta natura edukiak DBH 3. maila guztiekin transmititzea.

ARDURADUNAK ETA AGENTEAK

DBH 3. mailako euskara, naturako irakasleak eta normalkuntzako arduradunak.

Agenteak ikasleak dira.

DENBORALIZAZIOA

Hirugarren ebaluaketan

BALIABIDEAK

Agenda bera, pizarra digitala eta ordenagailuak.

EBALUAZIOA

Froga idatziak eta ahozko frogen bitartez ebaluatzea transmititutakoa eta puntuatu.

2.helburuaren formulazioa

ALEXIA plataforma erabiltzea irakaskuntza gestiorako eta ikasleen familiekin komunikatzeko

Kontuan hartu diren iturburuen aspektu zehatzen identifikazioa eta deskribapena eta eraginda diren ikastetxearen esparruak

Helburu honen iturburua zuzendaritza taldea da. Egun ezin dugu ukatu irakaskuntza plataforma digitalekin lotuta dagoela. Irakasleek tresna errez bat behar dute euren eguneroko lana era eraginkor batean egiteko, hau da: ikasleen faltak eta kalifikazioak jarri, gurasoekin hitzorduak jarri, ikasleei eta familiei mezuak bidali, familiekin kontaktuan jarri ... Alexia plataformarekin guzti hori lortuko dugu.

Plataforma hau ere familiekin ikastetxearekin eta irakasleekin behar dituzten hartu-emanak errazteko erabiliko da. Gainera, komunikazio horretarako egun denok eskura dugun tresna bat erabili dezakegu :mugikorra.

Hori dela eta aurten gure helburutariko bat Alexia plataforma digitala erabiltzea da.

1.JARDUERA:

Zuzendaritzak koordinazio Pedagogikorako Batzordean Alexia plataformaren aplikazioen berri eman.

ARDURADUNAK ETA AGENTEAK

Zuzendaritza taldea eta irakasleak

DENBORALIZAZIOA

Urrian

BALIABIDEAK

ALEXIA plataformaren informazioa

EBALUAZIOA

Mintegietan eztabaidatu aplikazioaren erabileraren inguruan.

2.JARDUERA:

ALEXIA plataformaren erabilera irakasleei erakustea .

ARDURADUNAK ETA AGENTEAK

Zuzendaritza taldea eta agenteak ikastetxeko irakasle guztiak.

DENBORALIZAZIOA

Abendua

BALIABIDEAK

Alexia plataforma digitalaren programa, arbela digitala, ordenagailuak.

EBALUAZIOA

Ebaluazio inkesta.

3.JARDUERA:

ALEXIA plataformaren erabilera gurasoei erakustea .

ARDURADUNAK ETA AGENTEAK

Zuzendaritza taldea eta agenteak ikastetxeko gurasoak.

DENBORALIZAZIOA

Abendua

BALIABIDEAK

Alexia plataforma digitalaren programa, arbela digitala, ordenagailuak.

EBALUAZIOA

Ebaluazio-inkesta.

4.JARDUERA:

ALEXIA plataformaren erabilera martxan jarri .

ARDURADUNAK ETA AGENTEAK

Zuzendaritza taldea eta agenteak ikastetxeko irakasleak eta gurasoak.

DENBORALIZAZIOA

Urtarriletik aurrera

BALIABIDEAK

Alexia plataforma digitalaren programa, ordenagailuak eta mugikorrak.

EBALUAZIOA

Ikasturte bukaeran irakasleek eta gurasoek beteko duten ebaluazio-inkesta.

3. helburuaren formulazioa

Unitate didaktiko digitalak sortzea.

Kontuan hartu diren iturburuen aspektu zehatzen identifikazioa eta deskribapena eta eraginda diren ikastetxearen esparruak

Helburu honen iturburua zuzendaritza taldea da. Egun gelak baliabide digitalez horniturik daude. Ikastetxeko gela gehienek pizarra digitala dute eta hiru informatika gela ditugu. Sarea erabilgarria da bertoko ikasle eta irakasle guztientzat. Irakasle askok liburu digitala erabiltzen dute arbela digitala erabiliz. Baina gure helburua liburu horien osagarriak diren material digitalak sortzea da. Unitate didaktiko horiek sortzeko sitesak, Drive, linkak, animazioak, audioak ... erabiliko dira. Bertoko irakasle batzuk eginda dituzten unitate didaktikoak eredu hartuko dira. Irakasle horien esku utziko dugu besteen formazioa.

1.JARDUERA:

Osagarria den material digitala sortzeko batzordea izendatu.

ARDURADUNAK ETA AGENTEAK

Zuzendaritza taldea eta irakasle arduradunak

DENBORALIZAZIOA

Azaroan

BALIABIDEAK

Ikastetxeko irakasleak

EBALUAZIOA

Proposatukoa irakasle horiek onartzea ala ez.

2.JARDUERA:

Batzorde arduradunek erabakitzea unitate didaktikoa sortzeko erakutsiko dituen baliabide digitalak.

ARDURADUNAK ETA AGENTEAK

Zuzendaritza taldea eta irakasle arduradunak

DENBORALIZAZIOA

Abendua

BALIABIDEAK

Ikastetxeko irakasleak

EBALUAZIOA

Jarduera honetarako bilerak egitea eta idatzizko txosten batean adieraztea unitatea sortzeko jorratuko diren helburuak eta prozedurak.

3.JARDUERA:

Unitate didaktiko digitalak sortzeko tailerra egitea.

ARDURADUNAK ETA AGENTEAK

Zuzendaritza taldea eta irakasle arduradunak.

DENBORALIZAZIOA

Urtarrila,otsaila martxo

BALIABIDEAK

Ikastetxeko irakasleak, arbela digitala eta ordenagailuak

EBALUAZIOA

Jarduera honetan sortzen diren unitate didaktiko digital kopurua eta aniztasuna.

4. helburuaren formulazioa

Ikasleen artean berdinen arteko harremanak lantzea.

Kontuan hartu diren iturburuaren aspektu zehatzen identifikazioa eta deskribapena eta eraginda diren ikastetxearen esparruak

Helburu honen iturburua Orientazio Talde izan da. Helburu hau aurtengo tutoretza planaren osagarria izango da. Denok dakigu gizarte sortzailea eraikitzeke berdintasuna oinarritzko printzipioa dela.

Ikasleen arteko elkarlana eta bizikidetzatza egokia izateko derrigorrezkoa da ikastetxean genero berdintasuna lantzea. Horretarako aurten berdintasunarekin erlazionatutako hainbat tailer eta proiektu onartuko ditugu.

1.JARDUERA:

DBH-1 ESKU-HARTZE proiektua martxan jartzea

ARDURADUNAK ETA AGENTEAK

Galdakaoko Udaleko Hezkuntza arloa, Elexaldeko Orientazio Taldea, ikastetxeko eta ikastetxetik kanpoko irakasleak. Hartzaileak DBH-1 mailako ikasleak.

DENBORALIZAZIOA

Urtarriletik ekainera.

BALIABIDEAK

Aurkeztutako proiektua eta ikastetxeko baliabide digitalak. Gainera proiektua aurrera eramateko berdintasun gaian iaioak diren irakasleak etorriko dira ikastetxera.

EBALUAZIOA

Ikasleek beteko duten idatzizko txostena.

2.JARDUERA:

Genero indarkeriaren prebentziorako tailerrak ematea.

ARDURADUNAK ETA AGENTEAK

Galdakaoko Udaleko Berdintasunaren arloa, Elexaldeko Orientazio Taldea, ABIPASE taldea eta Zuzendaritza Taldea. Hartzaiak DBH-2-3-4 eta Batxilergo 1 mailako ikasleak.

DENBORALIZAZIOA

Abendutik ekainera.

BALIABIDEAK

Aurkeztutako tailerraren edukiak eta ikastetxeko baliabide digitalak. Gainera proiektua aurrera eramateko genero indarkeri gaian iaioak diren irakasleak etorriko dira ikastetxera.

EBALUAZIOA

Ikasleek beteko duten idatzizko txostena.

3.JARDUERA:

Berdintasunaren aldeko pintadak egitea ikastetxean.

ARDURADUNAK ETA AGENTEAK

Normalkuntzako teknikariak eta normalkuntza batzordeko ikasleak.

DENBORALIZAZIOA

Azaroan.

BALIABIDEAK

Hormak eta margoak.

EBALUAZIOA

Pintadaren mezua eta kalitate estetikoa.

3. Ikastetxearen funtzionamendu atalak [DAE]

Eskola egutegia eta ordutegia

Ebaluazioen egutegia

Irakasleen eta tutoretza banaketa

OOGren partaideak

UIP 2015-2016 karpetan daude.

Irakasleriaren eginbeharren esleipenerako irizpideak:

Irakasleen betebeharrak esleipenerako erabiltzen dugun irizpidea, betebeharrak horren ezaugarriek eskatzen duten ezagutza eta jarrerekin lotuta dago.

Aurten hainbeste proiektuen arduradunak aldatu egin dira . Zuzendaritza taldeak kargu horietarako egokiak ziren lagunak izendatu ditu. Baloratu dena gehien bat izanda: kargurako behar diren eskarmentua, ezagutza eta jarrera.

Tutoretzen banaketarako irizpideak

Tutoretzak banatzerakoan erabiltzen den lehenengo irizpidea irakasle horrek gela osoari eskola ematea da. Gainera taldeari ematen dizkion ordu kopurua ere kontutan hartzen dugu. Pentsatzen dugu hainbat eta ordu gehiagotan egon ikasleekin hobeto ezagutuko duela taldea eta hori kontutan hartzen dugu.

Hala ere gehienetan, 16 eskola-ordu duten irakasleak dira tutoreak, horrela euren eskola-orduko ordutegia tutoretza orduekin betetzen dutelako.

Jarduera eskusibo saioen antolaketa [haur eta lehen hezkuntzan] eta ikastetxean ezohiko arreta emateko saioen antolaketa [beste mailatan]

Gure ikastetxean saio hauek astelehenetan eta asteazkenetan 16:00- 19:30ko ordutegia dugu.

Ikasleak taldekatzeko irizpideak

Irizpideak mugatuta daude aukerakoak diren ikasgaiak direla eta. Ikasleek hartutako aukerakoen arabera talde batean edo bestean kokatuta daude. Batxilergoko taldeetan horrek duen eragina handia da.

Baina DBHko taldeak sortzeko ekainean, ikasturte bukaeran ,DBHko taldeak sortzeko **irakasleen komisiok** sortzen dira eta bertan aurreko ikasturtean ikasleek izandako ikasteko jarrerak eta emaitzak kontutan hartuta taldeak sortzen dira.

DBH 1. mailak sortzeko eskolei ikasle bakoitzeko informea eskatzen dizkiegu. Gure ikastetxeko orientatzailea eta zuzendari ordea eskoletako orientazio taldeekin biltzen dira. Bilera horietan ikasleen ezagutza mailaz gain elkarbizitzako jarreraz era hitz egiten da. Hori guztia kontutan hartuta DBH 1. mailak sortzen dira.

Hezkuntza errefortzua eta laguntza antolatzeko irizpideak.

Gure ikasle batzuk, euren ezaugarriak direla eta, laguntza berezia behar dute. Hori dela eta PREEko, Curriculum Aniztasuneko, Osagarri Programako ikasleak ditugu. Ikasle horiek behar duten errefortzu bereziak Orientazio Taldeak antolatzen ditu. Ikastetxean PT irakasle bat ere badugu eta honek DBH 1. eta 2. mailako ikasleei laguntza ematen diete behar izanez gero.

Laguntza horren beharra ikaslearen aurreko urteko ikasketa egoera aztertuta proposatzen da eta adostua izaten da, familia, irakasle eta orientatzailearen artean.

Gainera ikusmen eta entzumen mugatuko ikasleak ere baditugu. Azken hauek CRIko irakaslea eta berritzeguneak jarritako logopeda bat dute ikasketetan laguntzeko.

Errefortzu eta laguntza horren jarraipena egiteko Orientazio taldea tutoreekin astean behin biltzen da.

Amankomuneko guneen antolaketarako eta banaketarako irizpideak

Gure ikastetxeko ikasleentzako gune amankomunak, hauexek dira: informatika gelak, bideo gela, liburutegia, areto nagusia ,banaketa gelak, jantokia eta patioa.

Kurtso hasieran irakasle batzuek Informatika gelan, bideo gelan eta banaketa gelan eskolak emateko eskatzen dute. Irakasle horiek lehentasuna dute gela horietan eskolak emateko eta gure informatikako aplikazioan horrela adierazita geratzen da. Gela horietako ordu libreak ere beste irakasleek ere erabili ditzakete. Horretarako gure ikastetxeko aplikazioan eskaera egin behar dute.

Areto nagusia ere aplikazio informatikoaren bitartez eskatu behar dugu.

Liburutegia astearteetan eta ostegunetan jantoki orduetan irekitzen da. Bertan irakasle arduradun bat dago.

Jolas-orduetan patioan gutxienez zaintzako hiru irakasleak daude eta berau zaintzeko hiru arlo ezberdintzen dira: aterpea, saski-baloi zelaia eta aurreko zatia.

Jantokian bazkaltzeko bi txanda daude. Lehenengo txandan DBH3.eta 4. mailako ikasleak bazkaltzen dute eta bigarren txandan DBH 1. Eta 2. Mailako ikasleak.

3. Esperientziak, programak eta proiektuak

Esperientziak, programa edota berrikuntzak ikastetxean

Izenburua edo gaia

Curriculum Aniztasuneko Programa

Oharrak

C.Ako talde bakarra dugu DBH 3. mailako ikasleentzat. Bertan 12 ikasle ditugu. Ikastetxearentzat garrantzizkoa da horrelako taldea izatea. Pentsatzen dugu, bertan dauden ikasleek dituzten ezaugarriak direla eta DBHko titulazioa eskuratzeko honelako aukera izatea biderik aproposena dela.

Izenburua edo gaia

HBSP PROIEKTUA

Oharrak

HBSPko 9 ikasle ditugu. Ikasle horiek DBH 2. mailako bi taldeetan kokatuta daude. Gela horietan ikasgai batzuetan bi irakasle elkarrekin daude ikasle horiei laguntza berezia emateko.

Izenburua edo gaia

Agenda 21

Oharrak

Proiektu honen arduraduna Jose Mari Arriola irakaslea da. Proiektuaren partaideak ikasleak ere badira eta eko-delegatuen batzordea izendatzen da lehengo eginkizuna

Aurten jorratuko duten gaia BIODIBERTSITATEA da.

Udaleko Ingurune sailarekin elkarlana egiten da.

Konpostera bat jarri da aurten jantokiko janari hondakinekin konposta egiteko.

Izenburua edo gaia

NORMALKUNTZA proiektua

Oharrak

Proiektu honen arduradunak Gotzone Bilbao eta Mertxe Candina dira. Bertan Irakasle eta ikasle batzordeak ere badaude. Proiektuaren helbururik garrantzitsuena ikastetxean euskararen erabilera bultzatzea da.

Horretarako hainbeste ekintza antolatzen dira. Batzuetan ekintzak herrian bertan egiten dira eta gehienetan ikastetxean.

Udaleko Euskara Sailarekin duten hartu-emanak estua da. Gutxienez hilean behin udaleko Euskara Teknikariarekin biltzen dira.

Izenburua edo gaia

ELKAR BIZITZA PROGRAMA

Oharrak

Aurten bertan berrikuntza moduan DBH1 ESKU-HARTZE PROIEKTUA 2015-2016 martxan jarriko da. Ikasleak berdinen arteko harremanak landuko dituzte. Proposamen hau udaleko hezkuntza sailetik jaso dugu.

Gainera drogamenpekotasuneko prebentzioko programa eta hezkuntza afektibo sexuala ere jorratuko dira

3. Prestakuntza eta garapen profesionala

↳ Ikastetxearen prestakuntza proiektu edota ekintzak [deialdi ezberdinen barruan]

gaiak eta egutegia /

IKASKETA KOOPERATIBOA	URTE OSOAN
UNITATE DIDAKTIKO DIGITALAK SORTZEA	URTARRILA-MAIATZA
CLASSROOM	URTARRIA-MAIATZA

↳ Irakasleriaren ikastetxez kanpoko prestakuntza ekintzak lan-ordutegian

irakaslea <i>profesor/a</i>	ekintza-gaia <i>actividad-tema</i>	tokia <i>lugar</i>	egutegia/ordutegia <i>fechas/horario</i>
Merche Candina	Ulibarri programa	Berritzegunea	Ordutegiaren arabera.
Aintzane Zenikazelaia		Berritzegunea	Asteazkenak 9:00-11:00

4. Irakaskuntza-jarduera osagarrien programa eta eskolaz kanpoko jardueren programa:

MINTEGIA	MAILA	EKINTZA	GELA/ KOPURUA	ORDUAK	IRAKASLEAK .../...
ORIENTAZIOA	1	*KERIK GABEKO GELAK *GATAZKEN KONPONKETA *SARE SOZIALAK *BERDINTASUN TAILERRAK	GUZTIAK GUZTIAK GUZTIAK GUZTIAK		
	2	*GENERO INDARKERIA PREBEN. *DROGOMENPEKOTASUNA *EGIN ETA EKIN	GUZTIAK GUZTIAK GUZTIAK		
	3	*SEXU-HEZIKETA IKASTAROA *DROGOMENPEKOTASUNA *GENERO INDARKERIA PREBEN.	GUZTIAK GUZTIAK GUZTIAK		
	4	*DROGOMENPEKOTASUNA *GENERO INDARKERIA PREBEN.	GUZTIAK GUZTIAK	4 1	SASOIA KANPOKOA
	5	*DROGOMENPEKOTASUNA *GENERO INDARKERIA PREBEN.	GUZTIAK GUZTIAK	4	SASOIA
	6	*ORIENTAZIO SAIOAK *JARDUERA PRAKTIKOAK *EHU ATE IREKIAK *DEUSTUKO UNIBERTSI.HITZAL.	GUZTIAK GUZTIAK GUZTIAK GUZTIAK	4	AINTZANE AINTZANE
NORMALKUN TZA	1	*INAUTERIAK *INAUTERIETAKO IRABAZLEAK	GUZTIAK	1	DAGOKIONA
	2	*ZUZTERLUZE LEHIAKETA *INAUTERIAK *IDAZLEAK IKASTETXEAN *EUSKARAREN EGUNA *AGENDA IBILBIDEA	GUZTIAK GUZTIAK GUZTIAK GUZTIAK GUZTIAK		DAGOKIONA DAGOKIONA DAGOKIONA DAGOKIONA
	3	* EUSKARAREN EGUNA * INAUTERIAK *LANDARE ETA SENDABELARRAK BILTZEKO IBILBIDEA	GUZTIAK GUZTIAK GUZTIAK		DAGOKIONA DAGOKIONA DAGOKIONA
	4	*DURANGOKO AZOKARA * INAUTERIAK *IHAUTERIETAKO IRABAZLEAK * ALTAMIRAKO IBILBIDEA *EUSKARAREN EGUNA	GUZTIAK GUZTIAK GUZTIAK GUZTIAK GUZTIAK	4	6 IRAKASLE DAGOKIONA DAGOKIONA DAGOKIONA DAGOKIONA
	5				
	6				

MINTEGI	MAILA	EKINTZA	KOPURU	ORDUA	IRAKASLEAK
BIO-GEO	1	*PAGOETARA (URRIAN)	GUZTIAK	6	
	2	*TORREMAIARIAGA (Urtarrilan)	GUZTIAK	2X5	2X3 IRAKASLE
	3	*PEÑAS NEGRAS (Udaberrian)			
	4	*VALDEREJO PARKERA(Maiatza)		6	DEPARTAM.
	5	*FLYSCHA IKUSTERA(Aben-Urt)		6	DEPARTAM.
	6	*FLYSCHA IKUSTERA *USANSOLOKO OSPITALERA *BIZKAR MUINEKO LESIOA(Abe)	GUZTIAK	6 4:30 2	DEPARTAM. DEPARTAM. ELKARTEA
AGENDA 21	1	*EKODELEGATUAK	4	2	ARRIOLA.
	2	*EKODELEGATUAK	4	2	ARRIOLA
	3	*EKODELEGATUAK	4	2	ARRIOLA
	4	*EKODELEGATUAK	4	2	ARRIOLA
	5				
	6				
GIZARTE	1				
	2	*GALDAKAOKO AGENDA (Urrian)	GUZTIAK		
	3				
	4	*ALTAMIRAKO IBILBIDEA (Urrian)	GUZTIAK	2	
	5				
	6				
GAZTELERA	1	*ANTZERKIA "ABBANDON" (Urr.)	GUZTIAK	2:15	MINTEGIA+3
	2	*ANTZERKIA "ABBANDON"(Urr.)	GUZTIAK	2:15	MINTEGIA+3
	3				
	4				
	5	*ANTZERKIA ¿	GUZTIAK		MINTEGIA
	6	*ANTZERKIA "BERNARDA ALBA"	GUZTIAK	3	
FRANTSESA LATINA	1				
	2				
	3				
	4	*BAIONARA (Kurtso amaieran) *ANTZERKIRA (Martxoan)	FRANTSES. LATINEK.		
	5	*PARISERA (Martxoan) *ANTZERKIRA (Martxoan)	FRANTSE. LATINEK.		

FILOSOFIA	1				
	2				
	3				
	4				
	5	*EBOLUZIO MUSEORA(Martxoan	GUZTIAK	6	MINTEGI+
	6				
MATEMATIKA	2	*OLINPIADA MATEMATIKOA			
FIS-KIM	4	*ZIENTZIA ASTEA (Azaroan) *KIMIKA BIZIRIK (Urtarrilan)	FK-BG FK		
INGELERA	1	*HITZALDIA (BURLINGTON)	GUZTIAK		
	2	*HITZALDIA (BURLINGTON)	GUZTIAK		
	3	*HITZALDIA (BURLINGTON)	GUZTIAK		
	4	*HITZALDIA (BURLINGTON)	GUZTIAK		
	5				
	6	*HITZALDIA (BURLINGTON)	GUZTIAK		
EUSKERA	1	*GORBEIALDE (Udaberian)	GUZTIAK		
	2	*EUSKARAREN ETXEA (Udaberr)	GUZTIAK		
	3	*IZENADUBA BASOA	GUZTIAK		
	4	*DURANGOKO AZOKA (Aben)	GUZTIAK		
	5				
	6				
TEKNOLOGIA	6	BOROAKO ZENTRAL TERMIKORA IRTEERA	GUZTIAK		AZAROAREN 27
	1 3	EL POBALERA IRTEERA	GUZTIAK		APIRILEAN

5. Eskolako zerbitzuak

zerbitzua	helburuak	antolatzailea	arduraduna	jasotzaileak	non - noiz	finanziazioa
-----------	-----------	---------------	------------	--------------	------------	--------------

JANTOKIA	Garraiatuak diren ikasleei zerbitzua ematea.	Eusko jaurlaritza.	GASCA eta Marian Martinez	Ikasleak	Ikastetxeko jantokia Astegunetan	Eusko jaurlaritza eta familiak
	Zerbitzu hau eskatzen duten familiei zerbitzua ematea					

GARRAIOA	Urrun bizi diren ikasleen garraioa (garraiatuak)	Eusko jaurlaritza	Eusko jaurlaritza.	Ikasle garraiatuak.	Astegunetan	Eusko Jaurlaritza
	Garraioa eskatzen duten familiei zerbitzua ematea	Ikastetxeko Guraso Elkartea	Ikastetxeko Guraso Elkartea	Ikasleak		Gurasoak

LIBURUTEGIA <i>BIBLIOTECA</i>	Ikasgela moduan erabiltzea	Zuzendaritza taldea. Mintegiak Mintegiak	Irakasleak	Astearte eta ostegunetan.	
	Hitzaldiak antolatzeko		Irakasleak		
	Bilerak egiteko		Irakasleak		

6. Ekonomia-kudeaketarako plana

Finantza baliabideen banaketaren irizpideak

Zuzendaritza taldeak ikastetxeko betebeharrak zeintzuk diren aztertzen ditu, beti ere ikasleen eta mintegien, irakasleak ez diren langileen iritziak entzunda gero. Mintegi bakoitzean dituzten behar-izenez eztabaidatuta eskaerak adosten dituzte. Ikasleen kexak edo iradokizunak ere kontutan hartzen dira erabakiak hartu aurretik .Hala ere Zuzendaritza Taldea da guzti horren koordinatzailea.

Ekonomia-kudeaketaren arduraduna/k :

Zuzendaritza Taldea eta idazkaria, Andoni Pinuaga.

Sarrera iturriak :

Diru iturriak hurrengoak dira: Eusko Jaurlaritza; Guraso Elkartea eta ikasleen gurasoak

Sarreraren aurreikuspena:

- Aurreikuspenak :
- Eusko Jaurlaritzaren diru sarrera urte naturalerako da eta ezin dugu aurreikuspen fidagarririk egin.
 - Guraso Elkartek euren bazkideen irteerak eta ekintzak urtean 6 eurokin finantzatzen dute.
 - Ikasle bakoitzeko gurasoek 20euro jartzen dute materiala, fotokopiak ... ordaintzeko.

Kontrol sistemak, gastuen justifikazioa eta erregistroa :

Kontrol sistema , justifikazioa eta erregistroa Eusko Jaurlaritza duen aplikazio ekonomikoa da.

Aplikazio horri erabili behar dugu edozein gastu justifikatzeko, faktura guztiak erregistratuta geratzen dira bertan.

Jarraipena, bilera kopurua, datak ... :


Zuzendaritza Taldea ostiralero biltzen da eta bertan ikastetxearen ekonomiaz hitz egiten da.

Baina erabakiak onartu behar dira OOG eta bilera horietan hartutako erabaki guztiak onartuak izan behar dira.

Egin behar diren txostenak, edukina, nori informatu... :

Egiten diren txostenak eta edukinak ikastetxeko ekonomia arduradunak egiten ditu. Informatzeko betiko bideak erabiltzen ditugu: Batzorde Pedagogiko , klaustro eta OOG bileratan.

7. Hezkuntza-komunitateari informazio plana

 **Hezkuntza-komunitateari informazioa helarazteko bideak: bilerak, elkarrizketak, bisitak, informeak, aldizkariak, web gunea, posta elektronikoa ...**

Egun informazioa helarazteko egunero erabiltzen da ikastetxeko posta elektronikoa. Gehien bat hori da gure bidea, baina batzuetan eraginkorragoa da informazioa paperean helaraztea, batez ere informazioa gurasoei zuzenduta dagoenean: baimenak, bileretarako deiak ...

Ikastetxeko web orria ere informazio orokorra zintzilikatzen dugu.

Aurten **ALEXIA programa** martxan ipintzeko asmoak ditugu eta horrek Hezkuntza-Komunitatearen komunikazioa erraztuko du.

IUPa ezagutu arazteko eta onartzeko estrategiak :

Zuzendaritza taldeak Koordinazio Pedagogiko batzordeko bileretan dituen helburuak aurkeztu ditu. Plana zintzilikatuko da institutuko aplikazioan eta gainera OOG partaide guztiei emailaz bidaliko zaizkie.

Azkenik OGGan aurkeztuko da eta onarpena bozkatuko da.

8. IUPren garapenaren eta ikastetxearen funtzionamenduaren jarraipena

Urteko planaren garapenaren jarraipenaren planifikazioa

UIParen garapenaren jarraipena Zuzendaritza Taldeak egingo du. Adierazita dauden helburuak lortzeko kudeaketa eta plangintza zuzendaritza taldearen esku egongo da.